

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapena

Vitoria-Gasteizko Udalean, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko (PSISZ) inspektoreorde kategorian, karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuaren oinarriak eta deialdia onartzea. Bi plaza eskaintzea: txanda irekiko bat eta barne-sustapeneko bat

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, 2022ko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen inspektoreorde kategoriarako.

Inspektoreorde (PSISZ) plazen eskaintza txanda irekiaren eta barne-sustapeneko txandaren bidez betetzeko, beharrezkoa da hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak eta deialdia bera onestea.

Horren haritik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau

EBATZI DUT

Lehena. Hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak onestea, zeintzuk ebazpen honen eranskinean jaso baitira.

Bigarrena. Hautaketa-prozesu honen deialdia onestea.

Hirugarrena. Ebazpena eta dagozkion eranskinak ALHAOean eta horren jakinarazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratzea; azken horren argitalpenak emango dio hasiera eskabideak aurkezteko epeari.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 17an

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkaria
JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO

I. IRANSKINA. GASTEIZKO UDALAREN ZERBITZURA INSPEKTOREORDE (PSISZ) KATEGORIAN KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO OINARRIAK.

Lehena. Deialdiaren xedea.

1.1. Oinarri hauen xedea da funtzio publikoan karrerako funtzionario sartzeko hautaketa-prozesua arautzea; oposizio-lehiaketaren sistema erabiliko da horretarako, txanda irekian eta barne-sustapenean.

2. plazarako deia egiten da. Eskala: Administrazio Berezia (2120B); azpieskala: teknikoa; mota: erdi-mailako teknikaria, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko inspektoreordea; taldea: A; azpitaldea: A2.

Deitutako plazak bat datoz 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan (2024ko uztailaren leko ALHAO, 73. zk.) jasotakoekin.

Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa bidezkoa izango da, eta honako hautaketa- eta banaketa-sistema hauen arabera garatuko da:

- Barne-sustapeneko sistema: Plaza bat, 3. hizkuntza-eskakizuna duen eta derrigortasun-data iraungi gabe duen lanpostuari dagokiona.

- Txanda irekiko sistema: Plaza bat, 3. hizkuntza-eskakizuna duen eta derrigortasun-data iraungi gabe duen lanpostuari dagokiona.

1.2. Deialdiari buruzko informazioa:

- Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.
- Iragarki-taula elektronikoan.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan: San Antonio kaleko 10.ekoa, gizarte etxeak, Ariznabarreko kiroldgia eta udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25).
- Argibideetarako telefonoan: 010 (Gasteiztik deituz gero), edo 945 161616 (Gasteiz kanpotik).
- Deialdi honi berariaz eskainitako herritarren postontzian.
- Posta elektronikoz: procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org

1.3. Kategoria berean hutsik dauden dotazioak gehituko zaizkio eskaintza honi, Gobernu Batzarrak hori aldeztu onetsita eta ALHAOn argitaratuta, baldin eta oposizio-fasea oraindik amaitu ez bada.

Bigarrena. Betekizunak.

Izangaiek betekizun hauek guztiak bete beharko dituzte deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitzean, beste eperik adierazi ezean:

2.1. Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako

Nazioarteko Tratatuak ezartzeari esker langileen zirkulazio librea duen estaturen batekoa izatea.

Orobat, parte hartu ahalko dute Europar Batasuneko estaturen bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek (zuzenbidez banatuta ez badaude), baita haien ondorengoek nahiz ezkontideenek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik hamasei (16) urte beteta edukitzea, eta nahitaezko erretirorako adinera iritsia ez izatea.

2.3. Titulazioa: Ingeniaritzako gradua edo Arkitektura Teknikoko gradua —edo Ingeniaritza Teknikoaren edo Arkitektura Teknikoaren baliokideak— izatea edo eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordainduta edukitzea. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioaren egiaztatzea erabakiko da.

2.4. Gidabaimena. B

2.5. Gaitasun digitalen egiaztagiria (IT txartelak) izatea. Eskatutako ziurtagiriak, maila aurreratuko bertsioak eta 2002az geroztikoak ere baliozkoak izanik:

Windows XP
Internet, oinarritzkoa
Word XP, oinarritzkoa
Excel XP, oinarritzkoa
Power Point XP

Hautaketa-prozesuen web-orrian emango da informazio osagarria talde bakoitzari dagozkion ziurtagiri zehatzei, baliokidetasunei eta lortzeko moduari buruz. Hori lortzeko gehieneko epea 6 hilabetez luzatuko da, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen denetik kontatzen hasita, bai lanpostuan bai kontratazio-zerrendetan sartzeko. Epea amaitutakoan, Udalak ofizioz eskatuko dizkio egiaztagiria erakunde ziurtagizailari, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira IT Txartelak adierazitako epean egiaztatuta ez dituztenak.

2.6. Diziplina-espeditente batez edozein administrazio publikoren edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzuetik bereizita ez egotea, ezta ebazpen judizial baten bitartez enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia izatea ere funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora sartzeko eragotziko duenik, hain zuzen. Administrazio publikoaren zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea. Hala ere, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan jasotzen den aukera-eskubidea baliatu ahalko dute.

2.7. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun arazorik ez edukitzea. Udal honetako

Prebentzio Zerbitzuak zehaztuko du lanpostuaren arabeko gaitasuna, Laneko Osasunaren Atalaren bidez, karrerako funtzionario izendatu aurretik.

2.8. Inskripzio-tasekin lotutako betekizuna. Hutsik dauden lanpostuen jabe izango direnak hautatzeko lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Gasteizko Udalak finkatuak dituen tasak ordaindu izana (zein titulazio taldeetarako lehiatzen den, horri dagokiona) eskabideak aurkezteko epearen barruan. Tasa dagozkion oinarri espezifikoetan adieraziko da, eta horiek onesten diren unean indarrean dagoena izango da. (7.13 tasa. Azterketak egiteko Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala; 18,80 euro A taldeentzat 2024an).

2.9. Barne-sustapeneko txandan parte hartzeko berariazko betekizunak:

2.9.1. Eskatutako titulazioa izatea eta beheagoko hurrengo kategorian zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egotea, edo eszedentzian egotea senitartekoak zaintzeko, indarkeria terroristagatik edo genero-indarkeriagatik.

2.9.2. Karrerako funtzionario gisa hiru urtez jardun izana beheagoko hurrengo kategorian.

2.9.3. Eginkizunak betetzeko eskatzen diren baldintza fisiko eta psikikoak betetzea, deialdian ezarritakoaren arabera.

2.9.4. Bigarren jarduerako egoeran ez egotea, haurdunaldian salbu.

2.10. Deialdi bakoitzeko, ezarritako bi txandetako batean soilik parte hartu ahalko da: Txanda irekia (TI) edo barne-sustapeneko txanda (BST).

2.11 Barne-sustapeneko txandan bete ez diren lanpostu hutsek txanda irekiko eskaintza handituko dute.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

3.1. Hautaprobetan parte hartu nahi dutenek udalaren webgunean dagoen eskabide elektronikoaren bitartez izapidetu beharko dute: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.

3.2. Eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Ondorio horietarako, larunbatak, igandeak eta jaiegunak ez dira egun balioduntzat hartuko.

3.3. Probak zein hizkuntzatan —euskaraz ala gaztelaniaz— egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.4. Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko ez betekizunei ez lehiaketa-faserako merezimenduei dagokien agiririk. Deklarazioak eta akreditazioak epaimahaiak ezarritako eran eta moduan egingo dira, informazio hori erregistro ofizialetatik zuzenean lortzen saiatu bada eta lortu ez badu.

3.6. Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Inork datu faltsurik ematen badu, hautaketa-prozesutik kanpo utziko da.

3.7. Izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte eta, eskabidea formalizatzen dutelarik, onartzen dute Gasteizko Udalak ahalmena duela erregistro ofizialetan kontsulta telematikoak egiteko titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, emandako zerbitzuak, gidabaimenak eta abar egiaztatzeko, kontsulta-modalitate hori ezinezkoa denean izan ezik, kasu horretan dokumentazioa eskatuko baitzaio.

Laugarrena. Borondatezko ariketak eta egokitzapenak.

4.1. Borondatezko euskara-proba. Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek hala adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eska daitekeen gehieneko maila lortu nahi den plazari dagokiona da.

4.2. Probetan egokitzapenak egitea behar dutenek eskabidearen oharren atalean adierazi beharko dute, eta Funtzio Publikoaren Sailari idatziz jakinarazi, posta elektronikoz (procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org); idazkian, desgaitasun mota eta eskatzen den egokitzapena zehaztu beharko da, eta proba egitekoa den eguna baino 10 egun balioudun lehenagotik gutxienez jakinarazi beharko da hori.

4.2.1.- Amatasunagatiko egokitzapenak. Haurdunaldian edo edoskitzaroen daudenek eskatu ahalko dute.

4.2.2.- Egokitzapenak irakurritakoaren ulermenean eragiten duten irakurketaren eta idazketaren nahasmenduak direla eta. Egokitzapena egiteko eskatu beharko dute. Egokitzapen hauek egingo dira: Arial 12ko koadernotxoak erabiltzea, eta proba osoa edo zati bat ozenki irakurtzeko eskatu ahal izatea. Probaren jarraibideak eta azterketaren eredu-orria —test motakoa bada— aldeztu aurretik argitaratuko dira.

Bosgarrena. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onesteko ebazpena emango du Funtzio Publikoaren zinegotziak; egoitza elektronikoa ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratuko da hori, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun baliouduneko epea izango dutela erreklamazioak egiteko eta akatsak zuzen ditzaten eskatzeko.

5.2. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak horiei buruzko ebazpena eman ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko da. Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, eta aukerako berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, egoitza elektronikoa ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkeztutako errekurtsua ebatzi ez bada probak egitekoak diren egunerako, interesdunek probak egin ahalko dituzte, kautelaz. Errekurtsua ezesten bada, kautelaz egindako ariketak balio gabetu egingo dira, eta ez dute inolako baliorik izango.

5.3. Zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesu horietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, galdu egingo dituzte prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak, eta jarduera guztiak balio gabetu egingo dira.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Honako hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea: Giza Baliabideen burua (lehendakaria izango da) edo hark ordezkotzatzen duena, hiru kide tekniko (bat IVAPek proposatuta), idazkaria eta horien ordezkotzak.

6.2. Kideek inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioa bete beharko dute, eta epaimahaiak osaera orekatua izango dute emakumeen eta gizonen artean. Hautaketa-organotako kide guztiak trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izan beharko dute, eta horietako batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren arloko hautaketan. Epaimahaiakideen erdiak, gutxienez, lanpostuan sartzeko eskatzen den titulazioaren jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, eta guztiak ere maila akademiko berekoa edo goragokoa.

6.3. Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Epaimahaiak Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren berdintasun-arloko aholkularitza izango du nahitaez.

6.4. Beharrezko diren neurriak hartuko ditu epaimahaiburuak epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren eta balorazio automatikoa izango ez duten oposizio-faseko idatzizko ariketak zein izangairenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

6.5. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.6. Epaimahaiko kide guztiak izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du; idazkariak, berriz, prozedura-gaietan baino ez du botoa izango.

6.7. Funtzio Publikoaren Saileko zinegotziaren ebazpen baten bidez izendatuko dira epaimahaiakideak. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko dira izendapenak.

6.8. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen esku utziko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egitea.

6.9. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, bertako kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira. Gainera, ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

6.10. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek haiek errefusatzea izango dute.

6.11. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiaik hautaketa-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, eta izangaia egindako okerren nahiz faltsutasunen berri eman.

6.12. Prozesuaren edozein faseri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahalko du epaimahaiaik hautaketa-prozesuko edozein unetan, edozein epaimahaikidek hala eskatzen badu.

6.13. Inork probetako edozein normaltasunez garatzea eragozten duen iruzurrezko jarduerarik egiten badu, edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera lehia desleiala sortzen duenik, epaimahaiaik hautaketa-prozeduratik kanpo utzi ahalko du, eta jardun horiek bilkura-aktan jasoko ditu. Hautaketa-prozesuko edonolako proba mota egiten den bitartean, ez da onartuko lehen aipatutako printzipioen kontra erabil daitezkeen bitarteko eta/edo gailu elektronikoak eduki edo erabiltzea. Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, berehala kanporatuko da, bai probatik, bai hautaketa-prozesutik, eta ez da, inola ere, horren ondoriozko lan-poltsan sartuko.

6.14. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago —kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik—, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa, Maila berekoen artetik, adinez nagusiena. Epaimahaiko idazkaria ordeztu beharra badago, epaimahaiaik gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.15. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b artikulua ildotik, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (“Nire hautaketa-prozesuak”) izango da hautaketa-prozesuko erabakiak, deiak, azterketa-deialdiak eta bestelako komunikazio-ekintzak ofizialki argitaratzeko lekua.

6.16. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaiaik.

6.17. Epaimahaietan eta epaimahaiekin parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

Zazpigarrena. Ariketen nondik norakoak eta komunikazioak.

7.1. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak) egongo da eskuragarri zereginen katalogoa eta egokitzen jotzen den gainerako dokumentazioa.

7.2. Izangai guztiek batera egiterik ez dagoen ariketetan, abizenen arabera zehaztuko da banaka edo taldeka jarduteko hurrenkera, Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean —ariketarako deialdia egiten den egunean indarrean dena— zehaztutakoari jarraituz.

7.3. Dei bakarra egingo zaie izangaiei ariketa bakoitzerako, 7.9 oinarrian jasotzen diren egoerak salbu. Nahitaezko probak egiteko zehazten diren egun, ordu eta lekuetan agertzen ez direnak hautatze-prozeduratik baztertuta geratuko dira besterik gabe. Berdin jokatu da nahitaezko probetara haiek egiten hasi ondoren agertzen direnekin. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badute, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu agertzea joko da ez agertzetzat.

7.4. Nortasun agiria, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute izangaiek probetara, eta edozein unetan eskatu ahalko die epaimahaiak erakusteko; orobat, epaimahaiak proba bakoitzerako ezartzen dituen materialak eraman beharko dituzte.

7.5. Ariketak ezingo dira hasi deialdi honen iragarpena BOEn argitaratzen denetik hiru hilabete igaro aurretik. Ariketak egiteko lekua, eguna eta ordua gutxienez hamar egun balioudun lehenago iragarriko dira, egoitza elektronikoan (“Nire hautaketa-prozesuak”).

7.7. Oposizioko probak 8. oinarrian adierazitako hurrenkeran ez baizik eta beste batean egitea erabaki ahalko du epaimahaiak, edo horietako batzuk egun berean egitea. Kasu horretan, aurrekoa gainditu dutenen emaitzak baino ez dira ebaluatuko, oinarrietan ezarritako hurrenkeran.

7.8. Aurreko probak gainditu dituzten pertsonak joan beharko dute probetara, baita, kautelazko neurri gisa, epaimahaiari emaitzen kontrako erreklamazioa edo Funtzio Publikoaren zinegotziari berraztertze errekurtsoa aurkeztu diotenen edo aurkeztetokotan direnek ere, baldin eta artean hura ebatzi ez bada. Kasu batean nahiz bestean, hautaketa-prozesuan jarraituko dutela jakinarazi beharko diote epaimahaiari, beharrezkoak diren baliabideak eta materialak jar ditzan. Kautelazko neurri gisa egindako frogetan lortutako emaitzak dossierrean gordeko dira, baina ez dira publikoak izango. Eragindako izangaiek epaimahaiak ezartzen duen helbide elektronikoaren bidez kontsultatu ahalko dituzte. Prozesua amaituta, eskaera onetsi ez bada, dosierra artxibatu egingo da eta, betekizunei eragiten badie, baliogabetuko.

7.9. Aparteko deialdiak. Kasu hauek eragindako pertsonen aparteko deialdi batera deitu beharko die epaimahaiak: deitutako proba egin baino 42 egun natural aurrerago gehienez ume batez erditzea, edo aurreikusitako datan proba egitea eragotzi duen ezinbesteko arrazoiren bat, epaimahaiak aintzat hartu badu. Deialdi nagusia egin ondoren aparteko deialdia egiteko epea gutxienez 42 egunekoa izango da, hau da, ume batez erditu diren emakumeei dagokiena, eta gehienez 56 egun naturalekoa. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokituko ditu, eta behar diren egokitzapen pertsonalak hartuko dira kontuan.

7.10. Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ezinbesteko kasutzat hartuko da, ezusteko kasua ez izan arren, proba edo azterketa bat egitea eragozten duen egoera, baldin eta ohiz kanpokoa, saihetsezina eta aurreikusi ezina bada. Apartekoa eta naturala, zeinean ez baitu izangaiaren borondateak esku hartzen, harentzat guztiz arrotza baita, eta aurka

egiterik ez baitu. Proba egiten denetik 3 egun baliodun igaro baino lehen informatu eta jakinarazi beharko zaio epaimahaiari. Kasu horietan, epaimahaiak pertsonaren egoera baloratuko du, prozesuan parte hartzerik izan dezan bermatzearen, baita neurri horrek hautaketa-prozesuan nagusi izan behar duen berdintasun-printzipioan izan dezakeen eragina ere, berez lehiakorra den prozesu batean parte hartzen duen kolektiboa izanik.

7.11. Ezingo da epaimahaikideekin banaka harremanetan jarri, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gaiz aritzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan sor daitezkeen gorabeherak epaimahaiari azalduko zaizkio (procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org), eta hark erabakiko du dagokiona, kide anitzeko organoa den aldetik.

Zortzigarrena. Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-prozesuak oposizio-fase bat izango du, baztertzailea; lehiaketa-fase bat eta euskararen ezagutzaren balioespena merezimendu gisa, ez-baztertzaileak biak; eta praktikaldi bat, baztertzailea.

8.1.- Oposizio-fasea

Fase honetan bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertzaileak. Gehienez eskura daitezkeen puntuazioa: 83 puntu.

8.1.1.- Sarbide libreko sistema

8.1.1.1.-Lehenengo ariketa: Ezagutza tekniko eta administratiboak. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Gehienez 35 puntu lortu ahal izango dira; gutxienez 17,5 lortu beharko dira. Test moduko 2 proba egin beharko dira, erantzuteko 4 aukera ematen direlarik, oinarri hauen eranskinetan ageri diren gaien inguruan. Erantzun zuzenengatik 1,00 puntu emango da, eta okerrengatik, 0,33 kenduko. Erantzun baliogabe edo anitzengatik eta zuri utzitakoengatik ez da ez punturik emango ez kenduko.

8.1.1.1.1.- 1. proba. Oinarri hauei dagokion gai-zerrenda orokorrarekin lotutakoa. Gehieneko puntuazioa: 11 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehieneko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.

8.1.1.1.2.- 2. proba. Oinarri hauei dagokion gai-zerrenda espezifikoarekin lotutakoa. Gehieneko puntuazioa: 24 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehieneko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.

8.1.1.2.-Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzailea. Gehieneko puntuazioa: 48 puntu. Proba teoriko-praktiko bat edo batzuk egin beharko dira, lanpostuaren funtzio eta zereginekin zuzenean loturikoak. Ariketa gainditzeko, gutxienez 24 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak item bakoitza balioesteko irizpideak gehituko dizkio galdera-koadernotxoari, baita puntuak esleitzeko zuzenketa-formula ere, halakorik bada.

8.1.2.-Barne-sustapenaren bidez sartzeko sistema.

Barne-sustapeneko hautagaiek ariketa berberak egingo dituzte, salbuetsita egongo dira lehen ariketako lehen proba egitetik eta bigarren proban gutxienez 12 puntu lortu beharko dituzte ariketa gainditzeko.

8.2.- Lehiaketa-fasea: Lehiaketa-fasean, izangaiek aitortutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, honako irizpide hauen arabera:

8.2.1.- Esperientzia profesionala. A (A2) taldean, deitutako lanpostuan, taldean funtzionario gisa administrazio, organismo eta entitate publikoetan izandako esperientzia profesionala balioetsiko da, eta lan-kontratadun langile gisa antzeko maila profesionala duten lanpostuetan izandako esperientzia, alegia, epaimahaiaren iritziz lanpostuaren edukiarekin eta eginkizunekin zerikusi zuzena duten lanpostuetan. Egun bakoitzeko 0,0058 puntu emango da (15 puntu gehienez). Eskabideak aurkezteko epera artekoak bakarrik hartuko dira aintzat.

Ondorio horietarako, honako hauek ere balioetsiko dira: izangaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora; amatasuna eta aitatasuna erraztea edo bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketekin edo baimenekin emandako denbora; eta emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenen bidez baliatutako denbora.

Epaimahaiak ezartzen duen unean eta moduan deklaratu eta egiaztatuko dira egindako zerbitzuak epaimahai kalifikatzailearen aurrean. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan emandako zerbitzuak beti deklaratu beharko dira, baina epaimahaiak eskatzen duenean baino ez dira egiaztatu beharko, baldin eta ezin badu ofizioz egiaztatu elkarreragingarritasun-plataformaren bidez (NISAE).

NISAEren bidez egiaztatzerik ez bada, eskumena duen organoak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak (lanpostua, zereginak eta denbora adierazi beharko dira). Ez dira balioetsiko zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen alokairu-kontratuak, bekak ezta prestakuntza-praktikak ere. Eskabideak aurkezteko epera artekoak bakarrik hartuko dira aintzat. Ez dira aintzat hartuko lan-esperientziaren alorreko merezimenduak baldin eta honako datu hauek espresuki adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide kategoria.
- Kontratazio-aldien hasiera- eta bukaera-datak.
- Lanpostuaren zeregin nagusiak, kategoria adieraztea aski deskriptiboa edo erreferentziazkoaren aski antzekoa ez dela uste izanez gero.
- Lanpostuaren titulazio-taldea edo sartzeko eskatzen den titulazioa, izenagatik hori ondorioztatuz ezin den kasuetan. Horretarako, lanpostuen katalogoak erants dakizkioke ziurtagiriari.

8.2.2. - Teknikari eskudunaren tituluaren balorazioa. **2** punturekin baloratuko da Eusko Jaurlaritzak jaulkitako Autobabes Planak egiteko teknikari eskudunaren agiria, edo bestelako homologazioak, epaimahaiaren ustez horren parekotzat jo daitezkeenak, Estatuko administrazio autonomikoek jaulkiak. Epaimahaiak ezartzen duen moduan eta epean egingo da tituluaren deklarazioa eta akreditazioa.

8.3.- Euskara jakitearen balioespena. Lehendik egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna edo horretarako proban egiaztatzen dena baloratuko da:

1. HE: 4,00 puntu
2. HE: 8,00 puntu.
3. HE: 12,00 puntu

Izangaiek hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua ez badute, dagokion deialdiko hautaketa-prozesuaren barruan deitzen diren probetan parte hartzeko aukera izango dute, edo egiaztatua dutela nahiz salbuetsita daudela adierazten duen ziurtagiri ofiziala aurkeztekoa.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatua dutenen kasuan, deialdiko lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko lehen proba baino lehenagokoa izan beharko da egiaztatua duten hizkuntza-eskakizun horren data. IVAPek emandako hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria dutenek, edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailarekin parekatutako euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiri ofizialen bat dutenek, baita Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ere, berariazko baimena emango diote Gasteizko Udalarri Erregistro horretan egiaztatzeko. Egiaztapen hori egitea baimentzen ez duten izangaiek dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute epaimahaiak hala eskatzen dionean. Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan —euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko— xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, eta hura Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota ez badago, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, baldin eta horri dagokion ariketa egin aurretik egiaztatu badute.

8.4.- Prestakuntza- eta praktika-fasea: Lehiaketa- eta oposizio-faseetako emaitzak aintzat harturik, epaimahaiak hiru (3) hilabeteko praktikaldirako izangaiek proposatuko ditu, eskaintzan zenbat lanpostu diren, horrenbeste izangai; epe horretan, lanpostuari dagokion ordainsari osoa jasoko dute. Karrera funtzionario izendatuak izatekotan, hautaketa-prozesuko aldi hau ere gainditu beharko dute proposatutako izangaiek. Azken fase horretan, trebetasun pertsonalak ebaluatuko dira bereziki, eta lanpostuan jarduteko betekizunetara egokitzen diren. Segurtasunaren Saileko Zuzendaritza Nagusia arduratuko da praktikaldia diseinatu, ikuskatu eta ebaluatzeaz —behar izanez gero, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari laguntza eskatu ahal izango dio, hori egiteko—. Praktikaldia bukatzean, eta tutorearen proposamena aintzat hartuta, ebaluazio-proposamen bat egingo du —‘gai’ / ‘ez gai’—, behar bezala arrazoiturik —kontuan izan beharko baitu praktikaldia gainditu den ala ez, baita lanbide profilerako egokitasuna ere—, eta Funtzio Publikoaren Saileko zuzendariari igorriko dio.

Egokitzen jotzen diren prestakuntza-ekintzak barne hartuko ditu praktikaldiak. Praktiketaren dauden langileei aurretik jakinaraziko zaie zein ezaugarri duen fase horrek, zenbat iraungo duen, nor izango duen tutore, zein izango den ebaluazio-sistema eta zein prozedura dagoen ez gaitzat jotzeko proposamenak errekurrizteko. Praktikaldia bukatzen denetik eta lanpostuaz jabetu bitartean izangaiek aukeran izango du dela praktikaldiko funtzionario gisa jarraitu, dela izendapen hori bukatutzat jo.

Bederatzigarrena. Emaidzak argitaratzea.

9.1. Epaimahaiaren argitalpenak egoitza elektronikoan egingo dira (“Nire hautaketa-prozesuak”).

9.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzunak jaso bada posta elektronikoz. Erreklamazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahaiak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta gaian erabiltzeko kodeak ere ezarri ahalko ditu, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearren.

9.3. Jakinarazpenak posta elektronikoz igorri jakinaraziko zaie deialdi jakin batera aurkezten diren izangai guztiei egoitza elektronikoan (“Nire hautaketa-prozesuak”) argitalpen berriak egin direla. Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta abisuak ez jasotzeak ez du balio gabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

9.4. Ezagutzak balioesteko proba idatziak bukatutakoan, baldin eta test modukoak izan badira, galdera-koadernotxo eta erantzun zuzenen behin-behineko orria argitaratuko ditu epaimahaiak, eta bost egun balioduneko epea emango akatsak berrikusteko. Jakinarazitako akatsak kontuan izanik, epaimahaiak behin betiko erantzun-orria onetsiko du, eta horren ondoren ariketa edo proba irakurri eta kalifikazioa jarriko. Emaidzak argitaratu ondoren 3 egun balioduneko epea emango da gutxienez irakurketa akatsak erreklamatzeko, halakorik bada.

9.5. Ariketa teoriko eta praktikoei dagozkien idatzizko probak test erakoak ez badira, emaidzak argitaratu ondoren 10 egun balioduneko epea emango da dosierra eskuratu ahal izatea eskatzeko; behin-behineko emaitzaren kontrako edozein erreklamazio aurkeztu aurretik egin beharko da hori. 9.2 oinarrian ezarritako prozedurari jarraituz eskatuko da dosierra eskuratzea. Dosierra eskuratzekotan, gutxienez ariketaren kopia —azterketa eskaneatua— jasoko da, posta elektronikoz eta pdf formatuan, baita zuzentzeko irizpideak eta eskatutako azterketari nola aplikatu zaizkion ere. Alegazioak aurkezteko epea 10 egun balioduneko izango da, dokumentazioa jasotzen denetik.

9.6. Horretarako epearen barruan izangaiek aurkezten dituzten berrikuspen-eskabide eta erreklamazio guztiak epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaidzak onesteko hartzen duen erabakian aintzat hartu eta erantzun dituela joko da. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

9.7. Azterketa- eta merezimendu-faseak burutu ondoren, proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera hurrenkeran, ariketa bakoitzean lortutako puntuak nahiz azken puntuazioak zehaztuta.

9.8. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko dute izangaiek, Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren zinegotziari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik.

9.9. Akordioak jasotzen dituzten ziurtagiriak eman ditzan eskatu ahalko zaio epaimahaiko idazkariari. Eskabide horiek egoitza elektronikoaren bidez izapidetu behar dira (“Nire hautaketa-prozesuak”).

Hamargarrena.- Praktikaldirako izendapena.

10.1. Epaimahaiak 10 egun balioduneko epea ezarriko du deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten jatorrizko agiriak (titulazioa, hizkuntza eskakizuna, titulu profesionalak...) Funtzio Publikoaren Sailean aurkezteko, sailak erregistro ofizialetan zuzenean lortzerik izan ez badu.

10.2. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta izangaiak agiri horiek aurkezten ez baditu adierazitako epean, edo eskatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da praktiketako funtzionario izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak emateagatik erantzukizunak eskatzea. Hala gertatuz gero, hautaketa-prozesua gainditu dutenen arteko hurrengoak —azken puntuazio-hurrenkerari jarraituz— izendatzeko proposamena egingo du organo eskudunak, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte.

10.3.- Betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ez duten izangaiek ezingo dituzte inolaz ere lanpostuak bete.

10.4. Funtzio Publikoaren txostenak aintzat harturik —titulazio betekizunak betetzen diren eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatu diren adieraziko da bertan, eskaintako lanpostuak zehaztuko, eta Udaleko Zerbitzu Medikuak emandako gaitasun-kalifikazioak jasoko (2.7. oinarria)—, eta orobat aintzat harturik lehiaketa- eta oposizio-aldietan lortutako emaitzak, praktikaldirako izendapen-proposamenak argitaratuko ditu epaimahaiak, eskaintako lanpostuen kopurua gainditu gabe.

Lanpostua egokitzea behar duten pertsonak Prebentzio Zerbitzuak beren premiak eta eskaintako lanpostu hutsen ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen dituen destinoetara atxikiko dira.

Gainerako destinoak barne-sustapeneko txandatik hasita aukeratuko dira, eta txanda irekiarekin jarraituko da; bi kasuetan, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan.

10.5. Berdinketak ebazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

10.5.1.- Berdinketa hausteko lehen irizpidea: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21 artikuluan jasotakoa hartuko da aintzat. Gaikuntza-maila bera izanez gero, emakumeei emango zaie lehen-tasuna % 40 baino gutxiago diren kidego, eskala eta kategorietan, salbu eta beste hautagaiarengan bestelako arrazoirik egokitzen bada —sexu bereizkeriarik gabe—, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duenik, hala nola lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen multzoetakoren batekoa izatea. Ondorio horietarako, izangaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, kasuan kasuko merezimenduak batu ondoren.

10.5.2.- Berdinketa hausteko bigarren irizpidea: lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duen pertsona proposatuko da, eta, hurrenez hurren, hurrengo ariketetakoak, goranzko ordenan.

10.6. Haurdunaldia, erditzea nahiz erditu ondoko aldia dela eta praktikaldian sartzerik ez duenik izanez gero, medikuak edo ospitalean alta eman eta lehengoratu arte atzeratuko da hori egitea; orduan izendatuko da praktikaldiko funtzionario, eta praktikaldiari ekin beharko dio. Hautaketa-prozesuko fase hori gainditzen bada, aldi baterako ezintasuna suertatu ez balitz legokioketena izango da ondorio administratibo eta ekonomikoen data. Era berean, arrazoi horiengatik pertsona jakin batek ezin bada bere lanpostuan hasi hautaketa-prozesua bukatu ondoren, promozioko gainerakoena bezalaxe egingo da haren karrerako funtzionario izendapena, eta izendapena egin eta lanpostuaz jabetzen den datatik izango ditu horrek ondorio administratibo eta ekonomikoak.

10.7. Txanda irekian eskainitako plaza-kopuru txikia kontuan hartuta, ez da ezarriko Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzko azaroaren 23ko 12/2023 Legearen 27. artikuluan xedatutakoa, emakumeekin bete beharreko plaza-kopurua zehazteari dagokionez.

Hamaikagarrena. Karrerako funtzionario izendatzea eta lanpostuaz jabetzea.

11.1. Praktikaldia amaitu eta gainditu ondoren, hautatutako pertsonak karrerako funtzionario izendatuko dira praktikak egin dituzten destino berean, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez.

11.2. Izendatutako pertsona horretarako ezarritako epean jabetu beharko da karguaz, praktikak egin dituen lanpostu berean, eta gehienez ere hilabete atzeratu ahalko du, lanean hasteko data argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

11.3. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez dutela aitortu beharko dute izendatutako pertsonak. Ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez direnek galdu egingo dituzte Gasteizko Udaleko karrerako funtzionario izateko eskubideak, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, baita hautatutako pertsonak izendatu aurretik edo lanpostuaz jabetu aurretik uko egiten dutenean ere, edo lanpostuaz jabetzeko ukan bertan sektore publikoan zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzia eskatzen dutenean —lanpostua gorde gabe eta benetan lanean hasteko aukerarik gabe—, Funtzio Publikoaren Sailak beste izendapen-proposamen bat egiteko eskatuko dio epaimahai kalifikatzaileari, hautaketa-prozesuaren azken emaitzen puntuazio-ordenaren arabera dagokien izangaien alde.

Hamabigarrena. Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak.

Egokitzen diren aldi baterako langile beharrei erantzuteko kontratazio-zerrendak sortuko dira deialditik —proba guztiak gainditu bai baina lanposturik eskuratu ez dutenekin osatuko dira—.

Txanda ezberdinak kontratazio-zerrendetan txertatzerakoan, barne-sustapeneko txandan parte hartu duten karrerako funtzionarioek lortutako puntuazioari salbuetsitako probek esleituta duten gehieneko balioa gehituko zaio.

Izangaiek prozesu horietan parte hartzeko eskabidean adierazi ahalko dute baimena ematen duten administrazio publikoko beste erakunde batzuei datu hauek lagatzeko: izen-abizenak, NAN, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datuen lagapen horren helburu bakarra eta eksklusiboa izango da haiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea legez aurreikusitako baldintzetan, eta beren adostasuna espresuki jasotzen ez bada ez dutela horretarako baimenik ematen ulertuko da.

Hamahirugarrena. Bibliografia.

Gai-zerrendetan ezarritako edukiek Internet bidez eskuratzeko modukoak izan beharko dute.

Hamalauugarrena. Aurkaratzeak.

15.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan aurkaratu ahalko dituzte interesdunek oinarri orokor hauek edo oinarrien eta epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzak.

II. IRANSKINA:**GAI-ZERRENDA OROKORRA**

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa: Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak. Eskubide eta eginbeharrak (10. artikulutik 52.era).
2. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-erkidegoak: ezaugarriak, eraketa eta antolaketa. VIII. titulua (137. artikulutik 158.era).
3. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak (10. artikulutik 23.era). II. titulua. Euskal Herriaren aginteak (24. artikulutik 34.era).
4. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: Udalerriko auzotarren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak (43. artikulutik 45.era).
5. Kode Zibila: Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak, arau juridikoen aplikazioa, arau juridikoen eta nazioarteko zuzenbide pribatuko arauen eraginkortasuna (1. artikulutik 12.era).
6. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. Udal errolda, auzotarren eskubideak eta eginbeharrak (15. artikulutik 18.era).
7. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. Toki-erakundeetako langileak (89. artikulutik 104.era).
8. 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. II. titulua. Udalerria (11. artikulutik 19.era). X. titulua. Biztanle-kopuru handiko udalerrak (121. artikulutik 137.era).
9. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena: funtzionario izaera lortzea eta galtzea (62. artikulutik 68.era); funtzionarioen administrazio-egoerak Euskal Enplegu Publikoaren Legearen arabera (136. artikulutik 160.era)
10. Enplegu publikoa: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena: langile motak eta enplegatu publikoen eskubideak (8. artikulutik 20.era). Enplegatu publikoen eginbeharrak eta Jokabide-kodea (52. eta 54. artikulua).
11. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Denbora-dimentsioa. Epe-mugak eta epeak (29. artikulutik 33.era). Administrazio-egintzak eta egintzen efikazia (34. artikulutik 52.era).
12. 9/2017 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. Sektore publikoko kontratuak: kontratu motak (12. artikulutik 24.era).
13. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. Sektore publikoko kontratuak: Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia, kontratua burutzea eta kontratuaren forma (34. artikulutik 37.era). Kontratuaren aldeak: kontratazio organoa (61. artikulutik 64.era), enpresariari jarduteko gaitasuna eta kaudimena (65. artikulutik 71.era).
14. 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. III. kapitulua - Eskubideak eta betebeharrak (14. artikulutik 29.era) V. kapitulua - Langileak kontsultatzea eta

langileen partaidetza (33. artikulutik 40.era). Gasteizko Udalaren Laneko Arriskuen Prebentzio Plana (2024ko bertsioa).

15. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua eta III. tituluko VII. kapitulua.

16. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena: I. kapitulua - Xedapen orokorrak; II. kapitulua - Printzipioak; III. kapitulua - Interesdunaren eskubideak.

17. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Hitzaurrea, aplikazio-eremu subjektiboa (1. artikulutik 4.era); informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12. artikulutik 22.era). 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. titulua - I. kapitulua (47. artikulutik 61.era).

18. Gasteizko Udalaren antolakuntza politikoa. Organoak eta funtzioak. Gasteizko Udalaren administrazio-antolakuntza. Organigrama.

19. Gasteizko udalerraren ezaugarriak, lurraldekoak eta sozio-demografikoak. Gasteizko Udalaren kultura- eta kirol-ekipamenduen mapa.

20. Herritarrentzako Arreta. Herritarrei arreta emateko bideak (udal webgunea, 010, herritarren postontzia, herritarrei laguntzeko bulegoak, udal erregistroa, arreta espezializatuko bulegoak).

21. Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: kontzeptua, ezaugarriak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Identifikatzeko eta sinatzeko baliabide digitalak. Gasteizko Udalaren Administrazio Elektronikoari buruzko Ordenantza (22. artikulutik 24.era).

22. Herritarren partaidetza. Parte hartzeko organoak eta bideak. Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoa.

GAI-ZERRENDA ESPEZIFIKOA

1. Babes Zibilerako Sistema Nazionalaren uztailaren 9ko 17/2015 Legea. (164/2015 BOE). (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

2. 12/2023 Legea, azaroaren 23koa, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzkoa. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

3. 1/2017 Legegintzako Dekretua, Larrialdiak Kudeatzeari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. I., II., III. eta IV. kapituluak. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

4. 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, Euskadiko Herri Babeseko Plana (LABI) onetsi eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena (azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen). 1/2015 Dekretua, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onartzen baita berrazterketa berezi bat egitea Euskadiko Herri Babeseko Planean (azken bertsioa,

aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

5. EAEko Uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Berezia (azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

6. EAEko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezia. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

7. Errepidez eta Trenbidez Salerosgai Arriskutsuak garraiatzeak dakarren Arriskua dela-eta sor daitezkeen Larrialdiei Aurre Egiteko EAEko Plan Berezia (azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

8. Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko martxoaren 2ko Aginduaren bitartez onetsiak (2023ko martxoaren 17ko EHAA, 54. zk.): Taktika operatiboaren zerrenda orokorra eta taktika operatiboetarako xedapen komunak (Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Zentrala; 6. argitalpena, 2023ko maiatzekoa, ISBN: 978- 84-457-3694-4, 9. orrialdetik 17.era eta 19.etik 26.era).

9. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerena. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

10. 17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

11. 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzkoa (azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

12. 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta izan dituen aldaketak: I. kapitulutik VII.era, biak barne. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

13. 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko (azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

14. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. 314/2006 Errege Dekretua eta I. parte —Eraikuntzaren Kode Tekniko eta irizpide orokorrak onetsi zireneko dekretua—. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

15. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SI oinarritzko agiria: Xedea. Aplikazio-eremua. Aplikatzeko irizpide orokorrak. SI oinarritzko agiria betetzeko baldintza partikularrak. Eraikuntza-produktu eta elementuen jokabide-baldintzak, suaren aurrean. Entsegu-laboretegiak. SI-A eranskina, terminologia. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

16. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SUA oinarritzko agiria: Xedea. Aplikazio-eremua. Aplikatzeko irizpide orokorrak. SUA oinarritzko agiria betetzeko baldintza partikularrak. SUA-A eranskina, terminologia. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

17. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SI 1 Sua barrualdean zabaltzea. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

18. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SI 2 Sua kanpoaldean zabaltzea: Mehelinak eta etxaurreak, estaliak. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

19. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SI 3 Ebaluazioa. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

20. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SI 4 Suteen kontra babesteko instalazioen hornidura. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

21. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SI 5 Gerturatzeko baldintzak eta ingurua, Etxaurretik bertaratzeko aukera. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

22. Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SI 6 Egituraren erresistentzia, sutea dela eta. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

23. Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SU oinarritzko agiria, segurtasuna erabileran: SUA-1 ataletik SUA-9 atalera, biak barne. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

24. 2267/2004 Errege Dekretua, zeinen bitartez industria-establezimenduetako suteen kontrako segurtasunari buruzko erregelamendua onesten baita: I. kapitulutik VI.era, biak barne; II. eranskina, 1.2 eta 1.4 taulak izan ezik, eta II. eranskina. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

25. 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, zeinen bitartez suteetatik babesteko instalazioen araudia onesten baita. (Azken bertsioa, aldaketak barne, halakorik balego oinarriak argitaratzen diren eguna baino lehen).

26. *Manual de gestión operativa y mando para servicios de bomberos*. Escuela Nacional de Protección Civil / ENSOSP ISBN 978-2-493547-04-0.

27. Tuneletako suteetan esku hartzea. Eusko Jaurlaritzak. ISBN 84-457-2341-3.

28. Introducción a la investigación de incendios. Eusko Jaurlaritzak. ISBN 978-84-457-2536-8.

29. Erreskatea trafiko-istripuetan. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

30. Lanak eta erreskatea altueran. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

31. Erreskatea ur-azalean: 1.3.1. Ur-azaleko erreskatearen teoria eta

32. Uretako erreskatearen faseak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko

edizioa).

33. Suhiltzaileentzako osasun larrialdiak. 1.4.12.- Biktima ugariko ezbeharrak, hondamendiak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

34. Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

35. Barruko suteak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

36. Basoetako suteak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

37. Suteen prebentzioa. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

38. Arrisku naturalak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

39. Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

40. Banaketa sareak eta instalazioak. 3.3.A. Suhiltzaileentzako elektrizitatea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

41. Banaketa sareak eta instalazioak. 3.3.B. Gas-instalazioetan eta banaketa-sareetan esku hartzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

42. Eraikuntza printzipioak eta egiturak egonkortzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

43. Arnasketa babesteko ekipamenduak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

44. Sua itzaltzeko baliabideak. Operazio eta instalazioak, mahukekin. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

45. Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

46. Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko ibilgailuak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

47. Larrialdietan laguntzeko euskal sistema. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

48. Lan-segurtasuna eta -osasuna. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).